

Erref.: FMR / Legeari Aholkularia

GAIA.- BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO EEZ KOORDINATZAILE LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETAREN DEIALDIA.

OINARRIAK.- Bizkaiko Iraupen Luzeko Zainketen Trantsizio Planaren jarduera-ildoan artean dago Erreferentziazko Eskualde Zentroak hedatzea Bizkaiko gizarte-zerbitzuen lau sektoreetan, egoitza-unitate soziosanitarioak eta laguntzako talde espezializatuak barne hartuta. Oraingo xedea da Birjinetxe erreferentziazko eskualde-zentroari atxikitako EEZ koordinatzailearen lanpostua betetzea.

Oinarri hauek Erakundeko sindikatuekin negoziatu dira, apirilaren 26ko eta maiatzaren 31ko bileretan.

Oinarriek jasotzen eta bere egiten dituzte, GUFEn esparruan eta aztergai dugun kasurako, sindikatuek Bizkaiko Foru Aldundiari berari dagokionez beren eskumenen esparruan dagoeneko negoziatu dituzten baldintzak eta betekizunak; hori bai, Erakunde honi buruz aurreikusten diren berezitasunak barne hartuz.

Bereziki, puntu honetan ohartarazten da Iraupen Luzeko Zainketen Trantsizio Planaren koordinatzailea Balorazio Batzordean sartu dela, prozesua hautatzeko organo gisa..

OINARRIAK.- Gai honetaz arduratzeko eskumena GUFEn Gobernu Batzordeari dagokio, GUFEn Estatutuak aldatzen dituen maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiagatik, hau sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio, azter dezan, honako proposamena:

ERABAKIA

Lehenengoa: Onartzea 1. Eranskinean aipatzen den lanpostua betetzeko lehiaketaren deialdia.

Bigarrena: Onartzea deialdiaren oinarriak, erabaki honen 2. Eranskin gisa jaso direnak.

Hirugarrena: Argitaratzea bai Erabaki hau bai Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Iragarki-taulan eta GUFEn web-orrian.

Laugarrena: Baimena ematea GUFeko gerente jaunari deialdi hau behar bezala garatu dadin behar diren egintza guztiak egiteko, ebazpena eman arte.



Bosgarrena: Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, edo aukerako berraztertze-errekurtsoa Batzorde honetan, hilabeteko (1) epean.

Bilbon, 2023ko ekainaren 20an

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'Eneko Gotiérrez Coterón'.

Sin.: Eneko Gotiérrez Coterón

GERENTEA

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'David Latxaga Ugartemendia'.

Sin.: David Latxaga Ugartemendia